



PRENTSARAKO OHARRA

18/12/14

Aldundiak behin eta barrero esan dau ez dagola “ez irregulartasunik ezta iluntasunik” Zabalgarbiko zepen inguruan

Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko Diputatuak, Zabalgarbiko plantan Gaiker aurrera eroaten ari dan zepen karakterizazino prozesuaren inguruan “alarmismorik” ez sortzeko eskatu deutse EH Bildu eta Podemos taldeei gaur goizean, jagokon Batzordean.

EH Bildu eta Podemos taldeek Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko Diputatuaren agerraldia eskatu dabe gaur goizean, zepen isurketan eta horreen azterketan egon daitekezan irregulartasunik dirala eta plataforma batek aurkeztu dauen salaketaren ganeko azalpenak emoteko. Salaketa horrek adierazoten dau, baita be, Gaikerrek “ez daukala behar hori egiteko beharrezkoa dan ENAC akreditazinoa”.

Azalpenakaz hasi aurretik, Unzuetak esan dau ingurumen arloko kontrola eta ikuskapena Eusko Jaurlaritzaren esku dagozala, eta ez Foru Aldundiaren esku. Gaikerri jagokonez, diputatuaren berbetan, “zuek irregularra dala dinozuen egoerea ez da holangoa, ingurumen arloko organoak adierazo dauenez”. Modu berean, esan dauenez, ingurumen arloko baimenak “ez dau esaten karakterizazino enpresak ENACen ezelango akreditazinerik euki behar dauenik”.

David Lopategi EH Bilduko bozeroaleak, “zepa tona horreek guztiak kudeatu diran moduaren ganean puntu ilun eta zalantza asko dagoz” esan dau; administrazinoek “gardentasun faltea” erakutsi dabela be salatu dau. Modu berean, Josean Elguezabal Podemoseko batzordekideak, Gaiker fundazinoak “ez dauela arautegia beteten” nabarmendu dau barrero.

Ganerako taldeek, barriz, Foru Aldundiaren erantzuna abalau dabe, eta Euskal Sozialistak taldearen kasuan, “danon onerako, zepen kudeaketaren ganeko arazoa konpontzeko proiektu ikugarria” aurkezteko eskatu deutse eskaria egin daben taldeei.

LEGEZ KANPOKO HILTEGIEAK DESAGERRARAZOTEA

Barrero be, sai arreek lekua hartu dabe Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraunkortasuneko eta Baliabide Naturaleko Batzordeko eguneko gai zerrendan. Aireportuaren inguruan daukien presentziari eta azkenengo asteetan horren ganean aitatu diran zergaiti posibleei jagokonez, Foru Diputatuak, Talde Mistoak eskatuta, Bizkaian legez kanpoko hiltegiak detektetako eta desagerrarazoteko martxan jarri diran neurrietako batzuk azaldu ditu.

Horri jagokonez, eta Lezamako ustiategi batean detektau dan legez kanpoko hiltegia aitatu, Diputatuak adierazo dau, aurrera eroan beharreko jarduketan ostean, bere Sailak animalien osasunari eta ongizateari buruzko zehapen espedienteak zabaldu dauela, hiru kontzeptu dirala eta: Animalia Osasuneko Legearen araberrako falta larria “behi erregistroari datu faltsuak emotegaitik”; Animalia Osasuneko Legearen araberrako falta

larria “gorpuak edo horreen hondakinak bertan behera izteagaitik”; eta Animalien Zainketaren Legearen araberako oso falta larria “animaliak aurretik zorabiatu barik sakrifikatzeagaitik, animaliangan beharrezkoa ez dan sufrimentua eraginez”.

Abeltzaintzako ustiapenetan animaliak hiltzen diranean, Foru Aldundiak animalien gorpuak jasoteko dobako zerbitzua eskaintzen dau. Unzuetak esan dauenez, zerbitzu horrek hileroko 500 dei baino gehiago jasoten ditu.

Erantzuna entzun ostean, Talde Mistoaren bozeroaleak Loiuko aireportutik gertu dagozan lekuetan “zainketa berezia” jartea iradoki dau, eta, inguruko udalakaz lankidetzan, horren ganeko “esfortzuak indartu” egin dirala argitu deutso Diputatuak.

EH Bildu kritikoko agertu da, David Lopategi batzordekidearen bitartez. Adierazo dauenez, “gauza horreek, politika publikoek abeltzaintza sektoreak animaliak beharrezkoak diran baldintzatan hiltzeko egozan azpiegiturak desmantelatu egin dituelako gertetan dira”.

Euzko Abertzaleak taldetik, barriz, Jon Beitia ordezkariak Foru Aldundiak arlo horretan aurrera daroan beharra defendidu dau, eta “ingurumeneko eta osasun publikoan sortu daitezkean aurreiritzi guztiak batuketa horreekaz desagerrarazoten dirala” azpimarratu dau.

BISOI EUROPARRAREN BABESA

Talde Mistoak galdetuta, Elena Unzueta Foru Diputatuak adierazo dau bisoi amerikarra desagerrarazoteko eta bisoi europarra babesteko LIFE Lutreola Proiektuaren barruan, aurtongo zementziaren 22tik 27 bisoi amerikar harrapau dirala. Unzueta pozik agertu da proiektuan izandako partaidetzarengaitik eta, bere eretziz, lan koordinatua “funtsezkoa” izan da. LIFE Lutreola Proiektua 2014an jarri zan martxan, eta 2019. urtearen erdialdean bukatuko da; dana dala, Foru Diputatuak aurreratu eban moduan, programea finkatzeko LIFE osteko batean parte hartzea eskatu da.

ISURKETAK ERREKETARA

Elena Unzuetak, Base Gorria desagertu zanetik erreketara egiten diran isurketa abisuen edota salaketan bilakaeraren ganean egin dauen azkenengo ahozko erantzun-eskeari be erantzun deutso.

Foru Diputatuak azaldu dauenez, aurtun, foru zerbitzuak erreketara egindako 39 isurketaren oharrak erregistratu ditu, eta horreetatik 6 faltsuak izan dira. Erregistrautako ohar guztien artetik 16tan “toxikotasun arriskua” egon da, eta horreetan larrialdietarako 112 zerbitzuak parte hartu behar izan dau.

Ohar gehiago jaso diran hilebeteei jagokenez, urtarrila, zezeila, martia, apirila eta maiatza dagoz, hilean 5na ohar jasota. Modu berean, Foru Diputatuak adierazo dauenez, aurtongo datuak kontuan izanda, isurketa gehien jaso dituen errekek Ibaizabal eta Nerbioi izan dira, 6 ohar bakotzak.

Aurreko urteakaz alderatuta, 2017an 40 ohar erregistratu ziran, eta 2016an 81.

EUKALIPTOARI EMOTEN JAKON FINANTZIAZIOA KENTZEA

Saioari hasierea emoteko, EH Bildu taldeak, eukaliptoaren finantziarino publikoa kentzeko aurkeztu dauen arauz besteko proposamen bat eztabaidatu eta ostean atzera bota da. Bere ekimena defendiduteko, Mikel Kormenzana batzordekideak azkenengo urteetan eukaliptoak gero eta hektarea gehiago hartzen dituala kritikau dau. Dana dala, Zuriñe Argatxa batzordekide jeltzaleak gogoratuazo dau eukalipto landaketak gero eta gehiago diran arren, gauza bera gertatzen ari dala espezie autoktonoakaz, eta azken horreek Foru Aldundiaren diru-laguntzea jasoten dabela.

Arauz besteko proposamenak EH Bilduren eta Podemosen aldeko botoak jaso dituan arren, ez da onartu, ganerako taldeek, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, Talde Popularrak eta Talde Mistoak kontrako botoa emon dabelako.

NOTA DE PRENSA

14/12/18

Diputación insiste en que no hay “irregularidades ni oscurantismos” en relación a las de escorias de Zabalgardi

La Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha pedido esta mañana en la Comisión correspondiente a los grupos EH Bildu y Podemos que no generen “alarmismo” en torno al proceso de caracterización de escorias desarrollado por Gaiker en la planta Zabalgardi.

Los grupos junteros EH Bildu y Podemos han solicitado esta mañana la comparecencia de la titular del área de Sostenibilidad y Medio Natural en relación a una denuncia presentada por una plataforma por posibles irregularidades en el vertido de escorias y en su análisis. Dicha denuncia, además, también señala que Gaiker “carece de la acreditación ENAC necesaria para esa labor”.

Antes de comenzar con sus explicaciones, Unzueta ha apuntado que el control e inspección medioambiental se trata de una competencia que corresponde al Gobierno Vasco y no a la Diputación Foral. En cuanto a Gaiker, la Diputada ha manifestado que “la situación que ustedes califican de irregular no lo es, a juicio del Órgano ambiental”. De igual manera, ha explicado que la autorización ambiental “no establece la obligación de que la empresa de caracterización deba contar con acreditación alguna de ENAC”.

El representante de EH Bildu, David Lopategi, ha declarado que “hay muchas sombras y muchas dudas sobre cómo se han venido gestionando todas estas toneladas de escorias”; también ha denunciado una “falta de transparencia” por parte de las administraciones. En la misma línea el apoderado de Podemos, Josean Elguezabal ha insistido en que la fundación Gaiker “no está cumpliendo la normativa”.

El resto de grupos, sin embargo, han avalado la respuesta de la Diputación Foral y han instado, en el caso del grupo Socialistas Vascos, a las formaciones solicitantes a presentar “un proyecto tangible para solucionar, en beneficio de todos, este problema en cuanto a la gestión de las escorias”.

ERRADICACIÓN DE MATADEROS CLANDESTINOS

Nuevamente los buitres leonados han ocupado el orden del día de la Comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de las Juntas Generales. En relación a su presencia en los alrededores del aeropuerto y a las supuestas causas arrojadas en las últimas semanas, la Diputada Foral ha detallado, a petición del Grupo Mixto, algunas de las medidas puestas en marcha para la detección y erradicación en Bizkaia de mataderos clandestinos.

A este respecto, y en referencia al matadero ilegal detectado en una explotación de Lezama, la Diputada ha manifestado que, tras las actuaciones correspondientes, se ha procedido a abrir en su Departamento un expediente sancionador en materia de sanidad y bienestar animal por tres conceptos: Falta grave por la Ley de sanidad animal “al notificar datos falsos al registro ovino”; falta grave por la Ley de sanidad de animal “por abandono de cadáveres o sus despojos”; y falta muy grave por la Ley de cuidados animales “al haber

sacrificado animales sin aturdimiento previo provocando sufrimiento innecesario en los animales”.

En caso de muerte de animales en explotaciones ganaderas, la Diputación Foral pone a disposición un servicio gratuito de recogida de cadáveres animales, que mensualmente según ha apuntado Unzueta, recibe más de 500 avisos.

Tras escuchar la respuesta, el portavoz del Grupo Mixto ha sugerido una “especial vigilancia” en las zonas cercanas al Aeropuerto de Loiu, a lo que la Diputada le ha aclarado que, con la colaboración de distintos ayuntamientos, se ha procedido a “redoblar los esfuerzos” en estos sentidos.

EH Bildu se ha mostrado más crítico a través de su apoderado David Lopategi, quien ha manifestado que “estas cosas pasan porque las políticas públicas han desmantelado las infraestructuras para que el sector ganadero pueda matar en condiciones a los animales”.

Desde el grupo Nacionalistas Vascos, su representante Jon Beitia, en embargo, ha defendido la labor de la Diputación Foral en esta materia, y ha subrayado que “todos los prejuicios que se puedan generar en el medioambiente y en la salud pública se eliminan con estas recogidas “.

PROTECCIÓN DEL VISÓN EUROPEO

A pregunta del Grupo Mixto, la Diputada Foral Elena Unzueta ha manifestado que, en el marco del Proyecto LIFE Lutreola para la erradicación del visón americano y protección del visón europeo, desde septiembre hasta el 22 de noviembre de este año se ha logrado atrapar a 27 visones americanos. Unzueta ha mostrado su satisfacción por la participación en este proyecto en el que el trabajo coordinado ha sido, a su juicio, “fundamental”. El Proyecto LIFE Lutreola se puso en marcha en 2014 y finalizará a mediados de 2019; no obstante, tal y como ya adelantó la Diputada Foral, se ha solicitado la participación en un post LIFE para la consolidación del programa.

VERTIDOS A RÍOS

Elena Unzueta ha respondido a una última pregunta oral planteada por EH Bildu sobre la evolución de los avisos o las denuncias por vertidos a los ríos desde la desaparición de Base Gorria.

La Diputada Foral ha explicado que este año, el servicio foral ha registrado 39 notificaciones de vertidos a ríos, de las cuales 6 han resultado falsas. Del total de avisos registrados, en 16 ha habido un “riesgo de toxicidad” en los que ha tenido que intervenir el servicio de emergencias 112.

En relación a los meses que han registrado más avisos, la lista se encuentra encabezada por enero, febrero, marzo, abril y mayo con 5 avisos por mes. De igual manera, la Diputada Foral ha apuntado que, atendiendo a los datos de este año, los ríos que más vertidos han registrado han sido el Ibaizabal y el Nervión, con 6 avisos cada uno.

En comparación con años anteriores, en 2017 se registraron 40 avisos y en 2016 un total de 81.

SUPRESIÓN DE LA FINANCIACIÓN AL EUCALIPTO

La sesión ha dado comienzo con el debate y posterior rechazo de una proposición no de norma presentada por el grupo EH Bildu destinada a la supresión de la financiación pública del eucalipto. A favor de su iniciativa el apoderado Mikel Kormenzana ha criticado el incremento de hectáreas ocupadas por el eucalipto en los últimos años. No obstante, la apoderada nacionalista Zuriñe Argatxa ha recordado que, aunque las plantaciones de eucalipto se han visto incrementadas, también lo han hecho las autóctonas, siendo éstas últimas objeto de subvención por parte de la Diputación Foral.

A pesar de que la proposición no de norma ha contado con el voto favorable de EH Bildu y Podemos, ésta ha decaído tras los votos contrarios del Grupo Nacionalistas Vascos, el Grupo Socialistas Vascos, el Grupo Popular y el Grupo Mixto.